



Nazioarteko batzar batek Bilbora gerturatuko ditu dislexiari buruzko azken aurrerapenak

- *Maiatzaren 5etik 7ra, mundu guztiko adituek parte hartuko dute IWORDD deituriko batzarrean, ikertzaile zein terapeutei zuzendutako jardunaldiz osatua.*
- *Basque Center on Cognition, Brain and Language-k (BCBL) hiriburu bizkaitarrean antolatutako Dislexiaren asteko ekitaldi nagusia izango da. Zentro donostiarra erreferente bat da hamar pertsonatik batek jasaten duen arazo honen inguruko ikerketaren arloan.*
- *Hilaren 4an publiko orokorrari bideratutako dibulgaziozko hitzaldia eskainiko da, dislexiaren alorrean eman diren aurrerapenak eta hauek hezkuntzan zein gaur egungo gizartean izan ditzaketen erabilerak azaltzeko asmoz.*

Dislexia irakurketan eragina duen arazoa da, izan ere, munduko hamar pertsonetik batek pairatzen du. Nahiz eta miloika kasu egon munduan, oraindik ezin izan dira kausak argitu. Aspaldi honetan lortu diren ezaguerak elkarbanatzeko asmoz, maiatzaren 4tik 7ra Dislexiaren astea ospatuko da Bilbon BCBL-ren eskutik. Bertan izango diren ekitaldietan ikertzaile, terapeuta, logopeda eta arazoa jasaten duten senideei informazio guzti hori azaltzeko aukera egongo da.

Donostiko zentro hau, burmuina, kognizioa eta hizkuntza aztertzeaz arduratzen dena, nazioarteko erreferentea da dislexiaren ikerketaren esparruan. Bai adituen artean informazioa partekatzeko asmoz, bai arazo hau gizartean ezagutarazteko, jardunaldi hauek arlo honetako aditurik garrantzitsuenak bilduko dituzte Bilbon. Lehenengo aldia da Donostiko zentro honek mota honetako jardunaldi zientifikoa hiriburu bizkaitarrera hurbiltzen duena.

Dislexiaren astearen barruan IWORDD izeneko batzarra antolatuko da eta, bertan, arazo honen diagnostikoari eta tratamenduari buruzko atal berezi bat izango da, ikertzaile eta terapeuta profesionalei zuzenduta. Horrez gain, dibulgaziozko hitzaldi bat eskainiko da publiko orokorrarentzat.

IWORDD batzar zientifikoa

Bilboko UPV/EHU-ko Bizkaia Aretoan (Abandoibarra, 4), maiatzaren 5etik 7ra, IWORDD (International Workshop on Reading and Developmental Dyslexia) izeneko batzarra ospatuko da. Bertan, 150 ikertzaile eta profesional baino gehiago, arazo hau duten hainbat lagun eta senide elkartuko dira bai dislexia eta bai irakurtzen ikastea erguzten duten beste zenbait nahasteri buruz aritzeko asmoarekin.



Arlo honetan internazionalki ezagunenetarikoak diren zenbait ikertzailek parte hartuko dute: besteak beste Franck Ramus, *Ecole Normale Supérieure* (Frantzia); Sylviane Valdois (*CNRS-Université Pierre Mendès-France*, Frantzia); Fumiko Hoeft (*UCSF-University of California San Francisco*, EE. BB.), Kenneth R. Pugh (*Haskins Laboratories* ikerketa zentroaren burua eta *Yale Unibertsitateko* irakaslea, EE. BB.); eta Nina Kraus (*Northwestern University*, EE. BB.).

Ekitaldiaren helburua mundu osoko adituek ideiak eta azkeneko ezagutzak arazoarekin erlazionaturiko beste profesional taldeekin elkarbanatzea da, adibidez ikasleekin lan egiten duten terapeutekin.

Ikertzaile eta terapeutak

IWORDD batzarrak bi atal izango ditu. *Lehenengoa*, «Ikuspegi teorikoak» izenekoa, maiatzaren 5 eta 6an ospatuko da eta dislexiaren ikerketa zientifikoan oinarrituta egongo da. Bertan, bost hitzaldi nagusi eskainiko dira ingelesez, nazioarteko mailan arlo honetan jarduten diren ikertzaileen kolektiboari zuzenduta. Honez gain, beste 12 hitzaldi eta 46 poster zientifikoen aurkezpenekin osatuko da jardunaldia.

Batzarraren bigarren zatia, «Teoriatik praktikara» izenekoa, maiatzaren 7an izango da. Egun honetan aurkikuntza zientifikoak testuinguru profesional eta familiarrean nola aplikatu azalduko da eta elkarte zientifikoak eta dislexiarekin erlazionaturiko beste hainbat kolektibok, hots arazoa tratatzen duten profesionalak, irakasle edota gurasoek, haien ezagutza, ikuspegiak eta iritziak emango dituzte.

IWORDD batzarraren lehenengo edizioa Donostian ospatu zen 2013. urtean, arrakasta handiarekin. Oraingo honetan helburua dislexiaren inguruko ezagutza beste eremu geografikoetara zabaltzea izango litzateke.

Dibulgaziozko hitzaldia

Dislexiaren asteari publiko orokorrari zuzendutako dibulgaziozko hitzaldi batekin emango zaio hasiera, IWORDD batzar zientifikoaren aurretiko ekitaldi moduan. Han arazo honen ikerketan eman diren azken aurrerapenak eta hauek gizartean zein hezkuntzan dituzten erabilpenak modu ulergarrian azalduko dira. Hitzaldi hau, «Irakurketa eta dislexia neurozientziaren ikuspuntutik», BCBLko zuzendari zientifikoa den Manuel Carreirasen eskutik etorriko da.

Hemen irakurketa prozesuan zein zirkuitok hartzen duten parte, hauek dislexiaren kasuan nola huts egiten duten eta zein zantzu jarraitu daitezkeen arazoa



goiz detektazeko esplikatu du. Hitzaldi hau maiatzaren 4an izango da, 19:00etatik 20:00ra Ikerbasque-ko egoitza nagusian (María Díaz de Haro 3, Bilbo). Sarrera librea eta dohainik izango da.

BCBL-ri buruz

Basque Center on Cognition, Brain and Language nazioarteko diziplina arteko ikerketa zentroa da. Donostian kokatuta dagoen zentro honek, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, kognizioa, burmuina eta hizkuntza ikertzen ditu Euskadin zientzia eta ikerketa sustatze aldera. BCBL BERC zentroetako bat da (Basque Excellence Research Center), Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen (ZTBES) barruan dago eta Ikerbasque, Innobasque, Gipuzkoako Aldundia eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) dira haren kideak.

Bilboko Dislexiaren asteko egitaraua

- **Maiatzak 4**

Dibulgaziozko hitzaldia: «Irakurketa eta dislexia neurozientziaren ikuspuntutik», Manuel Carreiras.

19:00, Ikerbasque-ko bulego nagusian (María Díaz de Haro 3, Bilbo). Sarrera libre eta doan.

- **Maiatzak 5 – 6**

IWORDD –Lehenengo atala: **Ikuspegi teorikoak** (zientzialari eta ikertzaileei zuzendua).

UPV/EHU-ko Bizkaia Aretoa (Abandoibarra, 4)

- **Maiatzak 7**

IWORDD –Bigarren zatia: **Teoriatik praktikara** (terapeuta, profesional, irakasle eta gurasoei zuzendua)

UPV/EHU-ko Bizkaia Aretoa (Abandoibarra, 4)